

OIARTZUNGO

XXXII.

PROSA ETA POESIA

LEHIAKETA

2019

ANTOLATZAILEA:

**OIARTZUNGO UDALA
EUSKARA BATZORDEA**

LEHIAKETAREN **OINARRIAK**

1. 8-18 urte bitarteko oiartzuar guztiek parte har dezakete. Oiartzunen jaioak edota ikasturte hasieratik Oiartzunen erroldatuak edo Oiartzungo zentroetako ikasleak direnak onartuko dira.
2. Lan guztiek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.
3. Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake bere mailari dagokion lehiaketa mota bakoitzean (LHn lanak taldeka aurkeztu ahal izango dira). Taldeka aurkezten direnen kasuan, saria taldearentzat izango da eta ez banakakoentzat.
4. LH 5etik gorako mailetan, ORDENAGAILUZ idatzita bidaliko dira idazlanak. Aurkezpenari dagokionez, ondorengoak bete beharko dira: **A4** neurrian, **1,5eko lerroartea** eta **ARIAL** letra mota erabilita (**12 puntuko** tamaina).

LH 3 eta LH4 mailetan, idazlanak ESKUZ idatzita bakarrik onartuko dira .

Lanen lehen orrialdean IZENGOITIA azalduko da eta 2 kopia aurkeztuko dira lan bakoitzeko (LH3 eta LH4 mailetakoen kasuan originala eta kopia bat). Orri TXURIAK erabiliko dira.

5. Lanaren 2 kopia "Klip" batekin lotuko dira. EZ dira kartazal handi batean sartuko.
6. Kartazal txiki batean, norbere datu pertsonalak jarri beharko dira:
IZENGOITIA
IZENA ETA 2 ABIZENAK
IKASMAILA eta ADINA
IKASTETXEA
HELBIDEA
TELEFONOA

Kartazal hau lan originalari lotuko zaio grapa baten bidez.
Kartazal txikiaren kanpo aldean ere IZENGOITIA idatziko da.

7. Mailaz mailako berezitasunak

LH3 eta LH4:

- **Prosa atalean soilik** lehiatzen da.
- Idazlanak **eskuz idatzita soilik** onartzen dira. Ez dira onartuko ordenadorez edota makinaz idatzitakoak 2 maila hauetan.
- Ikastetxe barruan, **gela bakoitzeko batez beste 5 lan onenak** aukeratuko dira. Kopuruarekin era malguan jotzeko da, Udaleko Euskara batzordearen oniritzia jasotzen bada.

Beste maila guztietan:

- Prosa eta poesia ataletan lehiatzen da.
- Idazlanak ordenagailuz idatzita soilik onartzen dira.
- Poesia sailean, gutxienez orrialde bateko (24 lerro inguru) luzeera izango du lanak eta gehienez 2 orrialdekoa.
- Prosa sailean, gutxienez 2 orrialdeko luzera izango du lanak eta gehienez 3 orrialde.
- Ikastetxe barruan, **gela bakoitzeko batz besterik 3 lan onenak** aukeratuko dira. Kopuruarekin era malguan jokatu da, Udaleko Euskara batzordearen oniritzia jasotzen bada.

8. Idazlanetan jorratu beharreko gaia librea izango da maila guztietan, bai poesia sailean eta baita prosa sailean ere.
9. Lanak Oiartzungo Udaleko Euskara Zerbitzura bidaliko dira, azaldu den eran. Ikastetxe bakoitzak maila bakoitzari dagozkion idazlanak mailaka sailkatuta entregatuko ditu Euskara Zerbitzuan.
10. Lanak aurkezteko epea, 2019ko urriaren 30ean, asteartea, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.
11. Sariak honela banatuko dira:

- Lehen Hezkuntzako 3.eko eta 4.eko mailatan, prosa sailean soilik burutuko da lehiaketa. Bina sari banatuko dira maila bakoitzean.
- Beste mailatan, lehiaketa eta sari-banaketa bikoitza izango da, hots, bina sari prosa atalean eta beste bina sari poesian, sail bakoitzean.

Lehen Hezkuntzako 3. maila (L.H. 3)

50 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

Lehen Hezkuntzako 4. maila (L.H. 4)

50 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila (L.H. 5 eta L.H. 6)

60 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (D.B.H. 1 eta D.B.H. 2)

80 € ko 2 sari (liburu edo ikasmaterialetan)

D.B.H. 3-4 (14-16 urte bitartekoak)

100 € ko 2 sari dirutan

D.B.H.O.- Batxilergoa (16-18 urte bitartekoak)

120 € ko 2 sari dirutan

12. Lan sarituen zabalpena egiteko, bide ezberdinak erabiltzeko aukerak aztertuko dira, liburuxka formatua, digitala... unean uneko baliabideen baitan.